



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko ekainaren 24a

59. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu Santa María de Garoñako zentral nuklearra itxi dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriaren eremu-banaketa berria egin dezan, beharizan eta hirigintza garapen berrietarako egokiagoa izan dadin, ikasleen eskolatzeari dela-eta. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako justizia administrazioa modernizatzeke foru plan bat presta dezan, ukitutako eragile sozial, politiko eta judizialen partaidetzarekin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio sistema bat antola dezan, Iruñeko ospitale batean tratamendua jaso edo kontsulta egin behar duten Iruñerriko kanpoko gaixoentzat. Osasun Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan laguntza publikorik eman Huarte familiaren arte bilduma hartuko duen museoa abian jartzeko, eta berrazter ditzan Nafarroako Unibertsitatearekiko eta beste merkataritza enpresa batzuekiko trataera eta harreman fiskalak. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 11/1992 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria bete dezan eta lanaren antolamendurako berriazko plan bat prestatzea proposa dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzak eta neurriak abian jar ditzan Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak ordain ditzan Osasunbideak aginduta osasun zentro batean erradioterapia, kimioterapia eta errehabilitazio tratamenduak hartu behar dituzten gaixoen garraio-gastuak, Iruñetik kanpo bizi badira. Osasun Batzordeak bazter utzia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, Guatemalako goi-ordokiko indigenak babestekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer iritzi duen eta zer jarrera hartuko duen Auzitegi Gorenaren epaiaren aurrean, autonomia erkidegoen esku uzten baitu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekin itunak egiteko aukera, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko “Rock en el Reyno” izeneko kontzertuetan gastatutako diruak Nafarroa turismoaren aldetik sustatzeko balio izan duen, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak zer departamentutan egingen dituen eta zenbatekoak izanen diren iragarritako murrizketak, Ana Figueras Castellano andreak egina (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2008ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu Santa María de Garoñako zentral nuklearra itxi dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Santa María de Garoñako zentral nuklearra itxi dezan". Horren jatorria da Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio bat, 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu Santa María de Garoñako zentral nuklearra itxi dezan.

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du al bait arinen itxi dezan Santa María de Garoñako zentral nuklearra, jarraipena emanez Espainiako zentral zaharrak beren bizitza erabilgarriko denbora bete ahala ixteko planari.

2. Nafarroako Parlamentuak energia nuklearra-
ren eredia amaiaraztearen aldeko apustu egiten du, gutxiago kutsatzen duten energien alde eta energia aurrezteko planak taxutu eta ezartzearen alde eginez eredu horren ordez.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriaren eremu-banaketa berria egin dezan, beharrian eta hirigintza garapen berrietarako egokiagoa izan dadin, ikasleen eskolatzea dela-eta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriaren eremu-banaketa berria egin dezan, beharrian eta hirigintza garapen berrietarako egokiagoa izan dadin, ikasleen eskolatzea dela-eta".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriaren eremu-banaketa berria egin dezan, beharrian eta hirigintza garapen berrietarako egokiagoa izan dadin, ikasleen eskolatzeari dela-eta

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñerriaren zonifikazioa alda dezan, halako moduz non zonifikazio berria hirigintza-garapen eta beharrian berrien arabera izan baita, eta lehentasuna emanen baitzaio, eskolatzeari dagokionez, ikaslearen bizilekua ikastetxetik gertu egoteari, bizi garen auzoan eta plazan egiten dugulako ikasgelatik haratagoko bizitza, eta orobat premiatzen du ikasleak onartzeko irizpideak norabide horretan alda ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda dezan 35/2007 Foru Dekretua, zeinaren bidez sortu baitziren Eskolatzeari Batzorde Nagusia eta tokiko eskolatzeari batzordeak, batez ere ondokoei dagokienez:

1. Eskolatzeari Batzorde Nagusiaren osiera, zeinak bere baitara bildu beharko baititu hezkuntza

erkidegoko pertsonak, ikastetxe publikoetako, institutu etako eta ikastetxe itunduetako zuzendarien ordezkariak eta gurasoen elkarteetakoak.

2. Eskolatzeari Batzorde Nagusiaren eginkizunak, halako moduz non eginkizunen artean ondokoak aldatuko baitira: ikasleak ikastetxeetan onartzeko eskariak jaso eta balioestea, araudian ezarritako irizpideekin bat, eta batzordeari ahalmena ematea neurriak proposatzeko ikasleen eskolatzeari oreka bermatzeko aldera, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko 86. artikuluko 2. idatz-zatian xedatuarekin bat.

3. Neurriak ezartzea, onartze-eskaeretakoa dokumentazioan ematen diren datuak eta eroldari nahiz bestelakoei buruzkoak egiaztatze aldera.

4. Puntu osagarriari buruz ezarritakoa aldatzea, halako moduz non puntu horiek mantentzeko egoki iritziz gero, puntu horiek irizpide objektiboak eta arrazoi objektiboak eta justifikatuei erantzunen baitiete funts publikoekin mantentzeko ikastetxe guztietan, ekidite aldera ikastetxe bakoitzaren jarreraren arabera aldatzea irizpideak, horrek ez baitu lagundu aukera berdintasuna bermatzen.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako justizia administrazioa modernizatzeko foru plan bat presta dezan, ukitutako eragile sozial, politiko eta judizialen partaidetzarekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko ekainaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako justizia administrazioa modernizatzeko foru plan bat presta dezan, ukitutako eragile sozial, politiko eta judizialen partaidetzarekin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako justizia administrazioa modernizatzeko foru plan bat presta dezan, ukitutako eragile sozial, politiko eta judizialen partaidetzarekin

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako justizia administrazioa modernizatzeko foru plan bat presta dezan, ukitutako eragile sozial, politiko eta judizialen partaidetzarekin.

2. Plan hori urtebeteko epean prestatu beharko da gehienez ere, behar bezalako plangintza egin ahal izan dadin eta erantzuna eman baliabide material fisikoaren eta giza baliabidearen arloko beha-

rrizanei, ematen den zerbitzu publikoa hobetze aldera.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea egungo Justiziaren Kontseilu Aholku-emailearen osaera

alda dezan, kontseilua justiziaren foru behatoki bihurtze aldera, ukitutako sektoreek, hartara, toki eta parte-hartze handiagoa izanen baitute oinarrizko zerbitzu publiko horretan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2008ko ekainaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da protokolo bat ezar dezan arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emateko

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du protokolo bat ezar dezan, arantza bifidoa duten gaixoei arreta integrala emate aldera. Protokolo horrek koordinazioa eta banakako jarraipena sustatuko ditu, eta aholkulari aditua-ren figura ezarriko du, erreferentziako teknikari gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arantza bifidoari aurrea hartzeko eta horri buruz informatzeko kanpainak egin ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemnak egin ditzan, Nafarroan arantza bifidoaren gaitasuna dutenei gaixo kronikoak direla aitordakien.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio sistema bat antola dezan, Iruñeko ospitale batean tratamendua jaso edo kontsulta egin behar duten Iruñerri-
tik kanpoko gaixoentzat.**

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2008ko ekainaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio sistema bat antola dezan, Iruñeko ospitale batean tratamendua jaso edo kontsulta egin behar duten Iruñerri-
tik kanpoko gaixoentzat"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio sistema bat antola dezan, Iruñeko ospitale batean tratamendua jaso edo kontsulta egin behar duten Iruñerri-
tik kanpoko gaixoentzat**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ospitaleen arteko garraio sistema doako eta egokitua antola dezan, Iruñeko ospitale batean tratamendu medikoa edo kontsulta duten gaixo guztiak, bertara joan ahal izan daitez-
zen ospitale hori haien erreferentzia-ospitalea ez bada ere, horrek inolako kostu gehigarri-
rik eragin gabe.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan laguntza publikorik eman Huarte familiaren arte bilduma hartuko duen museoa abian jartzeko, eta berrazter ditzan Nafarroako Unibertsitatearekiko eta beste merkataritza enpresa batzuekiko trataera eta harreman fiskalak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan laguntza publikorik eman Huarte familiaren arte bilduma hartuko duen museoa abian jartzeko, eta berrazter ditzan Nafarroako Unibertsitatearekiko eta beste merkataritza enpresa batzuekiko trataera eta harreman fiskalak"

Legebiltzarrak 2008ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 11/1992 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria bete dezan eta lanaren antolamendurako berariazko plan bat prestatzea proposa dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 11/1992 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria bete dezan eta lanaren antolamendurako berariazko plan bat prestatzea proposa dezan".

Legebiltzarrak 2008ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzak eta neurriak abian jar ditzan 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzak eta neurriak abian jar ditzan 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko".

Legebiltzarrak 2008ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak ordain ditzan Osasunbideak aginduta osasun zentro batean erradioterapia, kimioterapia eta errehabilitazio tratamenduak hartu behar dituzten gaixoen garraio-gastuak, Iruñetik kanpo bizi badira.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak ordain ditzan Osasunbideak aginduta osasun zentro batean erradioterapia, kimioterapia eta errehabilitazio tratamenduak hartu behar dituzten gaixoen garraio-gastuak, Iruñetik kanpo bizi badira".

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2008ko ekainaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Guatemalako goi-ordokiko indigenak babestekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak hoberena opa die herri gisa Guatemalari eta bere herritarrei, eta Guatemalan gehiengo den herri indigenarengana babes-adierazpen honen bitartez lagundu nahi du konfiantza areagotzen justizia egin dadin, legea eta indigenen tradizioa uztartuz, askatasun gabezia eta indarkeria pairatzen duten herritarrekin, bereziki emakumeekin.

1996ko Bake Akordioa sinatzearen eta munta handiko erreformak –adibidez, Polizia Nazional Zibila sortzea– ezartzearen ondorioz jaitsi egin zen giza hilketen kopurua, akordio haiek sinatzeak itxaropena piztu baitzuen guatemalarrengan. Gure ustez, orain ere indartzen ahal da itxaropen hori bake akordio horiek abiaraziz gero, batez ere indigenen nortasunari eta eskubideei buruzkoak, oraingoan aukera baitago segurtasuna deszentralizatzeko, tokiko agintari maia tradizionalekin koordinazioa areagotuz eta haienganako elkarrizketabideak irekiz.

Orain dela gutxi, NBEren laguntzaz, Zigorgabatasunaren aurkako Nazioarteko Batzordea sortu izana eta Polizia Nazionalari buruzko Lege Organikoaren erreforman eginiko aurrerabideak esperantza-iturri dira herriarentzat. El Salvadorren eta Guatemalaren artean nazio bitako segurtasun indarrak sortzeko akordioen bidez segurtasuna erregionalizatzeko berak aukera ematen du Erdialdeko Amerikan erregio mailako erantzun bat emateko indarkeriari.

Halere, kezkaz ikusten dugu, bizi baldintzei buruzko azken inkesta nazionalaren arabera (ENCOVI 2006), biztanleen % 51 txirotasunean eta % 15,2 txirotasun larrian bizi dela. Giza hilketak % 120 igo dira azken zazpi urteotan, 1999an 2.655 giza hilketa egotetik 2006an 5.885 egotera igaro baita (PNUD 2007). Adierazi nahi dugu ezen,

Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradoretzaren arabera, 250.000 delitu bakoitzeko 240 ikerketa baino ez direla iristen epaiketara. Aurreko gobernuko lehendakariorde Eduardo Stein-ek adierazi zuenez, landa eremuan ez dago legezko enplegurik, narkotrafikoaren diruarekin lehiatzeko modua ematen duenik, eta horrek Guatemalaren kolonbianizazioa dakar.

Egoera horren jabe egin gara, zoritxarrez, José Miguel Clemente jaunaren aurkako atentatuari esker, baina, kasu hori beste kasu bat baino ez da, Santa María Chiquimula-ko –Tonicapáneko departamentua, Guatemala– nahiz herrialdean zehar sakabanaturiko erkidego indigena ugarietako herritarrek pairatu dituzten atentatuen artean. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du atentatuen biktima guztiekin, justizia eskatzen du, eta adierazpen instituzional hau igortzen dio Guatemalak Espainian duen enbaxadari, eta adierazten du bere desira dela kiché eremuaren barruan jurisprudentzia sor dezan 2838-2007 zenbakiko prozesu judizialak –Tonicapáneko 37-2008 auzialdiko epaitegia–, ministerio publikoak tokiko agintari maia tradizionalekin batera abiaraziak; izan ere, kiché eremuan herritar gehienek ez dute ez babesik, ez baliabiderik ere, legea aplikatzeko. Nafarroako Parlamentuan uste dugu ireki den prozesu horrek erakusten duela ezen legea dela biderik onena legeak betearazteko, eta indarkeria eta lintxamendua saihestu behar direla aurkaria desagerarazteko modu gisa.

Desira dugu Álvaro Colom Caballeros buru duen Guatemalako Gobernuak Guatemalako herriaren esperantzei erantzun diezaien eta txirotasunaren nahiz txirotasunak dakarren indarkeriaren aurka borroka dezan, eginkizun horretan gure babesa eta Nafarroako Parlamentuarena izanen baitu.”

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

**Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer iritzi duen eta zer jarre-
ra hartuko duen Auzitegi Gorenaren epaiaren aurrean, autonomia
erkidegoen esku uzten baitu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituz-
ten ikastetxe pribatuekin itunak egiteko aukera.***ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer iritzi duen eta zer jarrera hartuko duen Auzitegi Gorenaren epaiaren aurrean, autonomia erkidegoen esku uzten baitu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekin itunak egiteko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu

du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Auzitegi Gorenak epai bat eman du, zeinean ondokoa baitio: "Ikasleak onartzeari buruzko esku-
mena dagokio ikastetxeak finantzatzen dituen hezkuntza administrazioari, eta ikastetxe itunduen –diru publikoarekin ordaindutako ikastetxe pribatuen– kasuan, eskumen horren agerraldi edo alderdi bat besterik ez da irakaskuntza mistoko sistema."

Epai honek autonomia erkidegoen esku uzten du ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekin itunak egiteko aukera. Nafarroan, gaur egun bi ikastetxetan egiten da irakaskuntzan nesken eta mutikoen arteko bereizketa derrigorrezko hezkuntzan, eta beste ikastetxe batek lehen hezkuntzako nesken ikastetxe bat sustatu nahi du heldu den ikasturteetik aitzina. Hori ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Galderaren testua

Hezkuntza Departamentuak zer irizten dio epai horri? Epai horrekiko zer jarrera hartuko du?

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko “Rock en el Reyno” izeneko kontzertuetan gastatutako diruak Nafarroa turismoaren aldetik sustatzeko balio izan duen.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko “Rock en el Reyno” izeneko kontzertuetan gastatutako diruak Nafarroa turismoaren aldetik sustatzeko balio izan duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako ezohiko galdera aurkeztu du, ekainaren 26rako eta 27rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

“Rock en el Reyno” izeneko kontzertuetan gastatutako diruak Nafarroa turismoaren aldetik sustatzeko balio izan duela uste al duzu?

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Gobernuak zer departamentutan egingen dituen eta zenbatekoak izanen diren iragarritako murrizketak.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Gobernuak zer departamentutan egingen dituen eta zenbatekoak izanen diren iragarritako murrizketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak zer departamentutan du asmoa iragarritako murrizketak egiteko? Zein izanen dira zenbatekoak?

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa,
Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Antsoingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Antsoingo Udalari buruzko fiskali-
zazio txostena, 2006ko ekitaldikoa,
Comptos Ganberak egina**

AURKIBIDEA

I. Sarrera (13. or.).

II Helburua (13. or.).

III. Norainokoa (14. or.).

IV. Iritzia (14. or.).

IV.1. Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra (14. or.).

IV.2. Legezketasuna (14. or.).

IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (14. or.).

IV.4. Gomendioen jarraipena (15. or.).

V. Amaierako ondorioa (15. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (15. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (15. or.).

VI.2. Langileak (15. or.).

VI.3. Administrazio-kontratazioa (16. or.).

VI.4. Inbentarioa-lbilgetua (17. or.).

VI.5. Dirusarrerak (17. or.).

VI.6. Patronatuak (17. or.).

VI.7. Hirigintza (17. or.).

VI.8. Gorabeherak (17. or.).

Antsoingo Udaleko Alkatearen oharrak (18. or.).

Eranskina: 2006ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuak.

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Antsoingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Euskara Sustatzeko Patronatua– 2006ko Kontu Orokorren fiskalizazioa egin du.

Antsoingo Udalak 9.952 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2006-12-31n
Udala	11.053.006	13.011.284	67
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	480.177	107.236	3
Euskara sustatzeko Patronatua	101.602	29.257	1
Guztira	11.634.785	13.147.777	71

Arestian aipatutako patronatuez gain, udalak badu Sexu hezkuntza eta jaiotza-kontrolerako patronatua, 2006an jarduerarik gabe egon dena.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

b) Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Horren bidez emandako zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa, abegi eta gizarte-orientazioa, haurtzarora eta familia, gizarteratzea eta lan munduan sartzea, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintzak.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan ere parte hartzen du. Bulego hori Burlatan dago kokatuta. Halaber, ANIMSA sozietate publikoan parte hartzen du.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.
- Kontratu publikoei buruzko foru araudia.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta, laugarrenean, Kontu Orokorri, legezkotasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkezten ditugu eta, seigarren eta azkenean, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2006ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen

abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoingo Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak garaturiko jarduerari aplikagarri zaion legeriaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

d) Nafarroako Comptos Ganberak 2005eko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazio-txosteneko gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Antsoingo Udalaren 2006ko Kontu Orokorra fiskalizatu du. Kontu horretan sartuta daude udalarena berarena eta bere erakunde autonomoena: Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Euskara Sustatzeko Patronatua.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-balantzea.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratuak.
- Oroitidazkia.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta horrekin kudeatzen da, halaber, erakunde autonomoen kontabilitatea; erakunde horiek organo-kode baten bidez identifikatzen dira.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrerei eta gastuei buruzko kapitulu ekonomiakoak eta ondare-masak berrikustea, horretarako

aztertuz antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta arauei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoen arabera beharrezkotzat jo ditugun proba edo prozedura guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoingo Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

IV.1. BURLATAKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta gaurkotu gabe dago. Hala ere, egiaztatu ahal izan dugu ondasunen katalogatze, baloratze eta kontrol lanak egiten ari direla. Udalak ez du formalki eratu lurzoruaren udal ondarerik.

Arestian aipaturikoen ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behinenetan gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun printzipioari jarraituz garatu dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua 9.048.375,36 eurokoa da, eta behin betikoa, 14.985.986,92 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 87koa

du, eta dirusarrerena, ehuneko 86koa, 2005ean izandakoa baino apur bat handiagoa.

Gastuen betetze-maila baxuaren arrazoi nagusia da inbertsioen betetze-maila apala; izan ere, ehuneko 39koa izan zen.

Diruzaintzako gerakinaren kargura eginiko aldatetek, aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako, 1,048 milioi euro egin zuten, eta nagusiki maileguen alde aurreko kitapenean biltzen dira.

Ekitaldiko finantza zamak –interesak gehi amortizazioa–, aipatu den maileguen alde aurreko kitapena dela eta, betetako gastu guztien ehuneko 31 egiten du.

Langileriaren gastuek eta ondasun arrunt eta zerbitzuenek ehuneko 25 eta 28 egiten dute, hurrenez hurren. Inbertsioek, berriz, aitorturiko gastu guztien ehuneko 13 egiten dute.

Dirusarrera esanguratsuenak zergei dagozkie, ehuneko 42, eta transferentzietan, ehuneko 38, nahiz eta horren ehuneko 12 urbanizazio kuotei dagokienez.

Ekitaldiaren amaieran, aurrekontuko emaitza doitua 1,069 milioi euroko superabita izan da, eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak 2,757 milioi egiten ditu.

2006ko abenduaren 31n epe luzerako zorra 2,315 milioi eurokoa zen, eta ekitaldi horretan 3,199 milioi euroko mailegu bat kitatu zen alde aurretik.

2006ko abenduaren 31n Antsoaingo Udalak finantza egoera ona erakusten du. Ezaugarri gisa ditu zorpetze maila baxua, ehuneko 5ekoa, eta ehuneko 21eko zorpetze muga, baina etorkizuneko erabakietarako kontuan hartu beharko da dirusarrera koiunturalen zenbatekoa, besteak beste, hirigintzarekin loturikoena.

IV.4. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Neurri egokiak hartzen ari dira 2005eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostenean jasotako gomendioak betetze aldera. Hala ere, indarrean

jarraitzen duten gomendioak txosten honen V. atalean jasota daude.

V. AMAIERAKO ONDORIOA

Laburtuz, eta amaierako ondorio gisa, esan genezake udalak modu egokian kudeatzen dituela bere aurrekontuak eta finantza-egoera sendoa duela. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

- *Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontrolen mekanismoak indartu eta osatu behar dira, egindako eragiketak ziurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatu eta berraztertzeari, kontabilitate printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.*

- *Patronatuak udalaren zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea, ez baitute ez instalazio ez langile berekirik.*

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, dituen antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Aurrekontua eta hari dagozkion eranskinak onestea, aplikatu behar diren ekitaldia hasi baino lehen.

Aldian aldiko kutxako kontaketa behar den bezala dokumentatzea.

VI.2. LANGILEAK

2006an, langileriaren gastuak 2,862 milioi euro egiten du, hau da, aurrekontuan aitorturiko bete-behar guztien ehuneko 25.

2006ko ekitaldian ez da langile finkorik hartu.

Honela osatzen da plantilla organikoa:

Langileak, mailaren arabera	A	B	C	D	E	Guztira
Funtzionarioak eta lan-kontratadun finkoak	1	2	26	10	4	43
Aldi baterako lan kontratupekoak		2	8	16	2	28
Guztira	1	4	34	26	6	71

Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea nominen aplikazioen bidez automatikoki pasa daitezen datuak kontabilitatera, eskuz eginez gero egin daitezkeen akatsak saihesteko.

VI.3. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, ondasun arruntak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.3.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

2006ko ekitaldian kontzeptu hauengatik aitorturiko betebeharrak iristen dira guztira betetako aurrekontuaren ehuneko 28ra iristen dira. Hona hemen xehetasunak:

Kontzeptua	2006an aitorturiko betebeharrak
Errentamendua	45.216
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	389.310
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	2.677.776
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	79.732
Argitalpen gastuak	23.212
Guztira	3.215.247

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Polizientzako ibilgailuen hornidura (13.255 €).
- Abiadura murrizteko gomazko zerrenden horniketa (15.911 €).
- Zuhaitz txorakoak, ezpondak, hirigunea eta pasabideak garbitzeko zerbitzua kontratatzea (11.253 €).
- Landareak eta geoehun-sareak berritzeko zerbitzua kontratatzea (12.122 €).

Espediente horien azterketaren eta arlo horretan eginiko testaren arabera, araudi indarduna behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraipena.

VI.3.2. Inbertsioak

2006ko ekitaldian, inbertsioak ehuneko 55 murriztu dira, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Hona hemen 2006ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena, inbertsioen arabera:

Kontzeptua	2006an aitorturiko betebeharrak
Inbertsioak eta azpiegiturak	732.534
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	669.441
Inbertsio ez-materialak	126.333
Guztira	1.528.308

Kapitulu honetako gastu gehienak aurreko ekitaldietan esleituriko obrei –aurreko ekitaldietan aztertu ziren horiek, eta ez zen gorabehera adierazgarri aurkitu– dagozkie. Ekitaldi honetako kontabilitateko idatzoharrak ere behar bezala dokumentatuta daude.

“Frontoiaren eta igerileku estaliaren eraikitze lanetan atzemandako akatsak konpontzea” izene-

ko esleipen-espedientea aztertu dugu, 371.409 eurokoa, hori baitzen ekitaldiko garrantzitsuena, eta ondorioztatu dugu modu egokian izapidetu dela.

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudi behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraipena.

VI.4. INBENTARIOA-IBILGETUA

Udal ondasunen inbentarioaren gaurkotze prozesua osatzea.

Udal inbentarioa etengabe gaurkotua eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea. Osoko Bilkurak urtero onestea inbentarioaren zuzenketak.

VI.5. DIRUSARRERAK

2006an, zergen bidezko dirusarrerek dirusarrera guztien ehuneko 42 egin zuten. Beste ehuneko 20 transferentzia arruntei eta kapital transferentziei dagokie, eta lursailen salmentek eta urbanizazio kuotek, besteak beste, aitortutako guztiaren ehuneko 37 egiten dute.

Aztergai hartu den tributu bidezko dirusarrerren laginean egiaztatu ahal izan denez, tributu horiek, oro har, behar bezala kudeatzen dira, haiei buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz likidatzen eta kobratzen dira, eta egokiro kontabilizatuta daude.

Aplikatzen diren karga-tasak indarrean dagoen legerian aurreikusten diren mugen barruan daude.

Udalak azterlan bat egin du ematen dituen zerbitzuek 2006an izan dituzten kostuei buruz, eta bertan tasa eta prezio publikoen bidezko estaldura-maila zehaztu da.

Inbertsio errealeen besterentzeari dagokion kapituluan, nabarmentzen da, zenbatekoa kontuan hartuta, lursail baten salmenta 1,650 milioi euroren truke. Besterentzea egin da enkante publiko bidez, eta aplikatzekoa den legedian ezarritako betekizunak errespetatuz. Horretaz gain, VINSArekin egini-ko lankidetzak hitzarmen baten bidez arautu zen lursail baten salmenta, 0,477 milioi euroren truke, babes ofizialeko etxebizitzien sustapen baterako.

Urbanizazio kuotengatikoko dirusarrerak 1,587 milioi eurokoak izan dira.

VI.6. PATRONATUAK

Oro har, patronatuek kudeatzen dituzten aurrekontuetan jasotako zenbatekoak txikiak dira. Horretaz gain, Sexu hezkuntza eta jaiotza-kontrolerako patronatuak ez du jarduerarik izan 2006an. Beraz,

Gure gomendioa da zehaztu egin behar dela erakunde autonomoen benetako autonomia maila eta aztertu egin behar dela komenigarria ote den horiek udal zerbitzu bihurtzea, horien kudeaketaren kontrola, efizientzia eta eraginkortasuna aragotzearen.

VI.7. HIRIGINTZA

2003ko martxoaren 27an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztzen baita uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea.

Udalak ez du egokitu hirigintza arloko planeamendua aipatu legeak ezarritako zehaztapenetara, eta aldaketa zehatzak egin dizkio aurreko planeamenduari.

Eginiko berrikusketari jarraikiz, udalak modu arrazoizkoan betetzen ditu hirigintza arloko lege-zehaztapenak. Hala ere, atzeman dugu ez dela formalki eratu lurzoruaren udal ondarea, ezta hirigintza arloko hitzarmenen erregistroa ere.

2006ko ekitaldian 3.204.260 euro erregistratu dira dirusarrera gisa ondarearen eta hirigintzako aprobetxamenduen besterentzeagatik. Dirusarrera horiek jasota daude udalak horien jarraipena egiteko prestatzen duen atxikitako baliabideen egoera-orrian.

VI.8. GORABEHERAK

2006ko abenduaren 31n, honako erreklamazio hauek dira nabarmengarriak:

- Iruñeko Udalak administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu zuen udalak Hirigintza Gerentziari igorritako 104.376,33 euroko likidazioaren aurka. Likidazioa Ezkaba SR sektoreko hirigintza kudeaketaren eta kudeaketa ekonomikoaren ehuneko 4ari dagokiona da, Nafarroako toki ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

- Udal igerilekuak eraiki dituen sozietateak aurkezturiko babes errekurtsua, igerilekuen akatsak direla-eta, 154.406,18 eurokoa.

- Kirol instalazio berriak eraiki dituen enpresaren erreklamazioa, lanak egiterakoan izandako atzerapena dela-eta ezarritako 305.609,61 euroko zigorraren aurka. Badu isun hori estaltzen duen abala, baina bada administrazioarekiko auzi errekurtsu bat, 2006an aurkeztutakoa, kiroldegiko lanen exekuzioa dela-eta, 365.000 euro egiten duena. Horrenbestez, eskatutako zenbatekoa, guztira, 689.183,8 eurokoa da.

Txosten hau auditore Rosa I. Zudaire Echávarri andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

COMPTOS GANBERAK ANTSOINGO UDALARI BURUZKO 2006ko EKITALDIKO FISKALIZAZIO TXOSTENAREN "HIRIGINTZA" IZENENKO V.1.7. IDATZ-ZATIARI EGINIKO OHARRAK.

Hala da, udala ez da egokitu Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak ezarritako zehaztapenetara. Dena den, horren arrazoia da Antsoaingo hirigintza-errealitatea, eta gainera ez du izan eragin kaltegarririk; izan ere:

1.- Indarrean dagoen udal planak ia modu atzerazinean osatzen eta antolatzen du dermio osoa eta Antsoaingo azken hirigintza-eredua ezartzen du epe luzera (gaur egun pentsaezinak diren hirigintza-eredua aldatzeko eragiketak egin ezean), eta ia erabat bete da (Alde Zaharraren ondoko sektore txiki bat izan ezik). Hori dela eta, egokitza-pena teorikoa izanen litzateke, eragin praktikoa duen ariketa baino gehiago.

2.- Gaur egungo planaren aurreikuspenak koherenteak dira foru lege horren oinarrizko ildo eta xedapenekin eta, hala, adibidez, bere garapenean (Ezkaba sektorean, esate baterako) ahalbidetzen du babestutako etxebizitzak eraikitzea, foru

legeak ezarritako parametro berberen edo handiagoen arabera.

3.- Aldaketek ez dute funtsean eragiten planean ezarritako hirigintza-markoan eta, are gehiago, nolabait ere bertan aurreikusita zeuden (adibidez, Atarrabia etorbiderako plaza berria ireki eta apartamentu babestuak eraiki diren unitateari dagokionez), eta ez lukete justifikatuko, ezta osotasunean hartuta ere, plana berrikustea.

4.- Lurzoruaren udal ondarea eratzeari dagokionez, Antsoaingo kasuan ondare osoa, Ezkaba mendiko herri lurren lusailak kenduta, hirigintzako jardueratik dator (planeamenduko lagapenak) eta lurzoruaren udal ondarea da. Horretaz gain, doktrina eta jurisprudenzia ez datoz bat ondare hori formalki eratzea beharrezkoa izateari dagokionez, berori osatzen duten ondasunak lurzoruaren udal ondareari atxikitzat izateko.

5.- Hirigintza hitzarmenei dagokienez, eginiko hitzarmenak exekutatu eta bete dira dagoeneko, eta, horren ondorioz, jada ez daude indarrean.

Antsoainen, 2008ko martxoaren 18an

Alkate-udalburua: Antonio Gila Gila



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	